



### Gure bazkideak

Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionala



### Iparra galdu gabe

Elikaduraren subiranotasuna Salvadorren



### Aurpegia ematen dugu

Juan Carlos Izagirre, SEADeko osasun-taldea



### Argitalpenak

2009ko Memoria

## Mundubat-ek gastu militarren zerga-eragozpenarekin bat egiteko aukera eskaintzen dizu



**Z**erga-eragozpeneko asanbladek bidezko bake solidarioaren alde gauden guztioi (asko gara) proposatzen digute geure hurrengo errenta-aitorpenean gastu militarren zerga-eragozpena egitea.

Mundubat-en, geure egiten dugu ekimena, badakigulako armek bakerik ez dakartela. Horrez gain, gastu militarren zerga-eragozpena herritarren eskubidea izan behar da, derrigorrezko soldadutzaren kontzientzia-eragozpena izan zen bezala.

Aitorpeneko kuota likidotik 84 euro kentzea eta Aljeriako Tindoufeko kanpaleku sahararretara bideratzea proposatzen dugu. Hain zuzen ere, *Hezkuntza-sistema sendotzeko* proiektua izango litzateke helburua, giza gaitasunak handitu nahi dituelako, hezkuntzaren kalitatea eta estaldura hobetuta.

### Nola egiten den eragozpena

Lau urratsetan egiteko moduko izapide soila da:

- 1 84 euroko diru-sarrera (edo beste bat) egin honako bi banku-kontu hauetako batean:

- Caja Laboral-Euskadiko Kutxa: 3035 0083 20 0830090006

- Santander Central Hispano: 0049 4808 36 2216197615

Ordeztagiria aitorpeneko gainerako paperekin erantsi.

- 2 Kenkariaren atalean (seme-alabak, gaixotasuna...), honako hauxe idatzi: "Gastu militarren zerga-eragozpena". Ondoren, eragotzitako zenbatekoa zein den adierazi.

- 3 Azalpena emateko gutuna erantsi. Hementxe duzu erredua: [www.mundubat.org](http://www.mundubat.org).

- 4 Zeure datuak (izen-abizenak, postahelbidea eta IFK) eta eragotzitako zenbatekoa bidali hona: Mundubat. Att. Zerga Eragozpena. Sombrereria 2, 3.a. 48005 BILBO.

Aitorpena egin baduzu, diru-sarrera egin eta, ondoren, bankuko ordeztagiria bidali Ogasunera, gutun argigarriarekin batera. Bertan, Ogasunari azaldu zure aitorpena aldatu behar duela, zenbateko hori beste helburu baterako dela kontuan hartuta. Gero, zeure datuak bidali Mundubat-era.

Gogoan izan zerga-eragozpena baliagarria izango dela, aitorpena negatiboa eta positiboa denean.

Eskerrik asko zure laguntzagatik. Guztion artean, lortu egingo dugu.

### BAZKIDEEN URTEKO BILERAN EGONGO GARA!

Ekainaren 15ean, Mundubat-eko bazkideen bilera egingo da, eta eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko gunea izango da. Bertan, hain zuzen ere, urteko kontuak, jarduketa-plana eta memoria aztertu eta fundazioaren gobernua baliotsi ahal izango dugu.

Hartara, partaidetza eta etengabeko hobekuntza sustatzeko hartu dugun konpromisoa sendotuko dugu, eta gardenagoak zein eraginkoragoak izateko helburua beteko du. Ekainaren 15ean, 18:30ean, lehen deialdian, eta 19:00etan, bigarren deialdian, batzartuko gara Bilboko Alde Zaharreko Pilota kaleko Yhon Jauregian ("La Bolsa").

Ordura arte!



## Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionala (ONIC)

Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionala (ONIC) herrialdeko herri indigenen "maloka" handia da, eta 1982an sortu zen, Indigenen I. Biltzar Nazionalan bildutako erkidego eta herri indigena kolonbiarren adostasunaren ondorioz.

### Borroka-plataforma

- Autonomia indigenaren defentsa.
- Lurralde indigenen defentsa eta babeslekuen auzo-jabetzapeko lur usurpatuen berreskurapena.
- Lurralde indigenetan dauden baliabi-

pako Batzordeak eta AECIDek batera finantzaturako zenbait proposamen garatu dira, besteak beste.

2009ko maiatzean, ONICen eta Mundubat Fundazioaren arteko Erakunde arteko Hitzarmena sinatu zen, garapenerako finantza-lankidetzako ekintzak eta herri indigenekiko elkartasun politikorako ekintzak garatzeko.

Gaur egun, Kolonbia 2009-2011 herrialde-estrategia dauka Mundubat-ek, eta toki-bazkide estrategikoekin eratu du kontsultapean. Euren artean, ONIC bera dago. Era berean, herri indigenekin lan egiteko estrategia ere ari da prestatzen, ONICen laguntzaz.

Bestetik, honako hauexek dira Mundubat-ek babestutako ONICen estrategiaren lehentasunezko hiru ardatzak: erakundea sendotzeko ardatza; herri indigenen eskubideak balioesteko, onesteko eta erabiltzeko ardatza; erakunde indigenek nazioartean duten agerpenaren (diplomazia indigena) eta trukearen ardatza.



Sortu zenetik, Kolonbiako Indigenen Erakunde Nazionala Kolonbiako lurralde indigenen zenbait borroka-prozesutako burua izan da. Bereizi gabeko garapen kapitalistaren ondorioak, balio kulturalen kalterako diren politika estatuen ezarpena, lurralde zein kultura arloko eskubide integralen ezjakintasuna eta instituzioek zein eragile armatuek etnien aurka garatutako indarkeria nahiz genozidio sistematikoak. Horra hor herri indigenen funtsezko arazoak, erakundearen babespean bat egiteko eta, erronka berriei aurre egin nahian, honako printzipio kultural hauetan oinarritutako borroka-plataforma eratzeke:

**Batasuna:** erkidego indigenen defentsarako antolamendua sendotzeko mekanismoa da.

**Lurra:** herri indigenen bizitza eta garapenerako funtsezko elementua da.

**Kultura:** herri indigenen nortasuna indartzeko, berreskuratzeko eta irauteko.

**Autonomia:** aurreko printzipioak ezartzeko eta agintea zein boterea erabiltzeko.

de naturalen kontrola.

- Erakunde ekonomiko bateratuen bultzada.
- Historia, kultura eta tradizio indigenen defentsa.
- Bi kulturako hezkuntza elebiduna, agintari indigenen kontrolpean.
- Medikuntza tradizionalaren berreskurapena eta bultzada eta erkidegoen ezaugarri sozial zein kulturalen araberako osasun-programak.
- 1890eko 89 Legearen eta indigenen aldeko gainerako xedapenen ezarpena.
- Beste sektore batzuen borrokarekiko elkartasuna.
- Erakundearen biltzarretako ondorioen ezarpena.

### Harreman estrategikoa

Mundubat-ek 1996. urteaz geroztik lan egiten du Kolonbian. Urte horretan, hain zuzen ere, ONIC nazionalaren filiala den OREWA erakunde indigenarekin hasi zen lanean Chocoko Departamantuan.

2004. urtean, ONICekin hasi zen lanean, eta herri indigenen defentsarako zenbait proposamen eratu eta garatu egin zituzten. Horren ondorioz, Euro-





Sareen garaia

## Emakumeen Munduko Martxa

Ekainaren 30ean, Europako Gizarte Foroaren bezperan, Emakumeen Munduko Martxaren 2010eko Ekintza Europarra egingo da Istanbulen. Zerbait tailer egingo dira, EMMren lau ekintza-arloei buruzko hausnarketa eta aldarrikapen europarrak jorrazteko. Horrez gain, manifestaldia ere egingo da, euren eskubideen eta herrien autodeterminazioaren aldeko borrokan Europako elkartasun feminista emakume turkiar eta kurduekin dagoela adierazteko. EMMk Europa irekia, demokratikoa eta sekularra proposatzen du, eta, bertan, emakume guztiek eduki behar dute euren eskubideak eskubide osoko herritar moduan erabiltzeko aukera. Mundubat Emakumeen Munduko Martxako Euskal Herriko Plataformako kidea da, eta topaketa horretan parte hartuko du.



## Iparra galdu gabe

### Agenda

- Ekainak 9 eta 10.  
Emakumeen giza eskubideen tailerrak:  
**“Sexu eta ugalketa eskubideak - Emakumeen egoera gatazkapeco herrialdeetan”**  
Vitoria-Gasteiz
- Ekainak 17-19.  
**“Gatazkapeco herrialdeei buruzko foroa (Kolonbia, Chiapas, Palestina eta Mendebaldeko Sahara)”**  
Bilboko Hikatenen. Ekainaren 14tik 20ra, hitzaldiak Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait udalerritan.

## Elikaduraren subiranotasuna Salvadorren

Mundubat Salvadorko Elikaduraren Subiranotasunari buruzko Legearen prozesua babesten ari da, eta prozesu hori Landa Ingaruneko Langileen Kontseilu Nazionalen elkartutako nekazarien erakundeek sustatu dute, hain zuzen ere. Alde horretatik, Salvadorko nekazaritza zein abeltzaintza sektorearen azterketa egin da, eta nekazari-erakundearen proposamenak babesten ditu. Agiria editatuta dago, eta CNTCn elkartutako erakunde horietako ordezkariekin garatu dira jarduerak, Euskal Herrian nahiz Madrilan.



## Argitalpenak


### 2009ko Memoria

2009ko Jardueren Memoria argitaratu dugu. Bertan, hain zuzen ere, zehaztasunez eta gardentasunez azaldu ditugu urtean zehar garatutako jarduerak, fondo ekonomikoen kudeaketa eta zeregin horretan gidari ditugun baliok. Hemendikxe jaitziahalizango duzu: [www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)



### Elikaduraren subiranotasuna, biodibertsitatea eta kulturak

Elikaduraren subiranotasunaren ikuspegi politikopean, landa-gaiei buruz egindako hausnarketaren, eztabaidaren eta informazioaren gaineko argitalpena da, eta hiru hilean behin argitaratzen da. Pentsamendu kritikorako tresna da, eta landa-ingurune bizia defendatzen duten Nekazarien Bidea edo Landa Plataforma bezalako nekazari-mugimenduek egiten dute. Gustavo Duchek editatzen du, eta, beste GGKE batzuekin batera, proiektuko erakunde laguntzailea da Mundubat.



## Aurpegia ematen dugu

Juan Carlos Izagirre, medikua, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko osasun-taldeko kidea

## "Saharako herriaren erresistentzia-gaitasuna eta duintasuna harrigarriak dira benetan"



### Noiz sortu zen osasun-taldea?

Proiektua 1996an sortu zen, SEADko Osasun Ministerioak eskatuta: "Lehen mailako atentzioko osasun-egitura babesteko programa". Lehen mailako atentzioko kontsultetan, materialak hornitzea eta euren ingurunean eguneratutako irakaskuntza funtzionala zein sorospena eskaintzea da hasierako helburua. Horrez gain, laguntasuna ere hartu behar da kontuan, oso garrantzitsua delako betikotu den behin-behinekotasunean 35 urte daraman herriarentzat.

Proiektua aldatu egin da urteotan. Gaur egun, laguntza zuzenari ematen zaio lehentasuna, kanpalekuan mediku saharar gutxi daudelako. Erizain sahararrak, ordea, lehen baino hobeto daude prestatuta. Hori dela eta, aldaketak gertatu dira kanpalekuetara bidaiatzen dugun taldeetan.

Lehenengo taldeak ugariagoak ziren. Oraingo taldeak, ostera, txikiagoak dira (2-4 lagunekoak), eta medikuei zein pediatriei ematen zaie lehentasuna.

### Zein da jarduteko era?

Zenbait bidaia egiten dira urtean (aurton, 9 egin nahi ditugu), eta, orain arte, 15 eguneko bidaiak izan dira. Bidaia batzuk 1-3 hilekoak izatea da asmoa. Horrez gain, beste erakunde batzuekin koordinatzea ere bada helburua, antzeko taldeak eraman ditzaten eta laguntza urte osokoa izan dadin.

Era berean, mediku sahararrak ere joaten dira kanpalekuetara, eta euren oporrak ematen dituzte bertan. Denok koordinatu behar gara, boluntarioak ez gainjartzeko eta borondatezko lanari ahalik eta errentagarritasun handiagoa ateratzeko.

Interesdunak taldekideren batekin jartzen dira harremanetan, eta Saharako herriaren egoera politikoari eta proiektuari buruzko informazioa ematen die. Laburpen-agiriak ematen zaizkie, eta taldearen bilera batean parte hartzen dute (30-45 egunean behin batzartzen gara). Bertan, taldean sartzeko eskabidea betetzen dute.

Bidaiatzen duten batzordeetan, beti-beti esperientziadun boluntarioen bat dagoenez, jende berriak ez du inoiz bakarrik bidaiatzen. Ospitale Probintzian lan egiten dugu (ospitaleratze aukera eskaintzen duen osasun-zentroaren antzekoa da), baita Dairasko anbulatorioetan ere. 45.000 inguru biztanle atenditzen ditugu.

### Une honetan, zein dira lehentasun medikoak?

Batez ere, etengabeko laguntza lortzea. Kanpalekuan medikurik ez dagoenez, horixe bera da lehentasuna.

Horrez gain, bertan dauden osasun-langile sahararrak trebatzea ere bada lehentasuneko. Prestakuntza zuzena ematen zaie, beti-beti erizainekin edo erizaintzako ikasleekin lan egin behar delako. Horrela, langile medikorik ez dagoenean, osasun-erantzukizuna hartu ahal izango dute euren gain.

Medikuntzako materialen egoera kezkarria da benetan. Sendagaiak hornitzeko arazoak daude, eta oso zaila da ekipamendu medikoa behar bezala artatzea.

### Nola ikusten duzu sahararren etorkizuna?

Zail samarra da. Dena dela, bertan gaudenean, niretzat oso harrigarria da herri horrek nolako erresistentzia-gaitasuna eta duintasuna dituen ikustea. Baldintza latzetan bizi dira, baina gehienek itxaropenez eta ilusioz hitz egiten dute euren lurrerako itzulerari buruz. Egia esan, denbora hau guztia euren kalterako da, apurka-apurka adorea galten dutelako.

NBERen ebazpenak euren aldekoak dira, nazioartean babes handia dute eta herritarren laguntza humanitario paregabea jasotzen dute, baina gatazka ez da behin betiko konpontzen. Ikaragarria da nolako boterea duen Marokok eta nolako xantaia egiten dien Europari zein nazioarteari. Aldi berean, Espainiaren beraren jarrera ere lotsagarria da erabat, herri horri traizioa egin diolako. Bestetik, tamalgarria da Frantzia edo AEB bezalako herrialdeek NBERi horrelako iseka egitea.

Gero eta sarriagotan entzuten da gerra itzuliko dela. Bada beste aukerarik? Autonomia handiagoaz edo txikiagoaz, Marokori men egitea baino ez diete proposatzen. Ez dut uste Saharako herriak hori inoiz onartuko duenik.



## Bat egin! Izan bazkide

Mundubat GGKE / Sombrerería, 2 3º / 48005 BILBAO / (+34) 944 162 325

[mundubat@mundubat.org](mailto:mundubat@mundubat.org) / [www.mundubat.org](http://www.mundubat.org)